



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Deialdi honen bidez **deitzen den osoko bilkurak izaera mistoa izango du**. Hau da, batzarkideak pleno aretora bertaratu ahalko dira edota telematikoki konektatuko dira bilkura honetara.

Azkoitia intzidentzia maila altua duen herrietako bat da Urriaren 22ko osasuneko sailburuaren aginduaren arabera (*zeinaren bidez osasun publikoaren arloko neurri bereziak hartzen baitira, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan eta oinarrizko osasun-eremutan sortutako COVID-19 pandemiaren agerraldi epidemikoa geldiarazteko*). Agindu horrek gomendatzen du bizikidetza egonkorreko taldetik kanpoko gizarte-topaketak murriztea eta baita ahal den neurrian, bizikidetza egonkorreko taldera murriztea barruko espazioetako gizarte-topaketak.

Halaber, data berdineko osasun sailburuaren Aginduak, zeinaren bidez *osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Euskal Autonomi Erkidegoan, COVID 19ak eragindako egoera epidemiologikoaren bilakaera dela eta*, gomendatzen du edozer talde edo bileratan parte hartzeko gehieneko kopurua sei pertsonakoa izatea, bai espazio publikoetan bai pribatuetan, elkarrekin bizi diren pertsonen kasuan izan ezik.

Horiek ikusita, Alkate honek ulertzen du, badagoela nahikoa arrazoi apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46.3 artikuluan zehazten duen aukera erabiliz pleno mistoa deitzeko. Ahal dela bozeramaileak bertaratzeko deia egiten da, proposatzen den arautegiaren laugarren puntuan zehaztutakoaren harira. Bestalde, gainontzeko kideei telematikoki konektatzeko gomendioa egiten zaie.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

UDAL OSOAREN OHIKO BILKURA

DEIA

Lehen deialdia: Ordua:....**19:00**

Bigarren deialdia: Ordua:.....

Eguna: **2020-10-28**

EGUNEKO LAN ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkurako aktaren onespena, hala badagokio.
- 2.- Gaiaren premiatasuna berretsiz gero, Udalbatzar telematiko eta mistoen funtzionamendu arauen onespena.
- 3.- Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko Udaleko 6 zenbakidun espedientearen hasierako onespena.
- 4.- 2020- 2022 Azkoitiko Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoaren aldaketaren onespena.
- 5.- Azkoitiko udalerrian indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa 2020 dokumentuaren onespena.
- 6.- Aurrekontuari buruzko informazioa.
- 7.- Galde-erreguak.

Azkoitian, 2020ko urriaren 23an,
ALKATEAK,

Nire aurrean,
IDAZKARIAK